

22/23 ikasturtea

Lehenago lepotik burua eta borrokarako aukerak zabalik

Ikasturte berria, zaharrak berri

Ikasturte hau ere bere hitza bete gabe hasi du Hezkuntza Sailak. Irailaren 1erako langileek eskolan egon beharko luketela adostu bagenuen ere, ez da horrelakorik gertatu. Langileak astebete beranduago hasi dira eskolan lanean (gehiago izan ez denean) eta oinarrian aurreikuspen falta badago ere, agerian geratzen da Hezkuntza Sailak ez duela langileon beharrekin bat egiten, are gutxiago haur eta ikasleen beharrekin, egoera kaotikoetan haiek baitira kaltetuenak.

Ikasturte oso bat dago hutsen zuzenketa egin eta hurrengorako egoki antolatutako esleipen prozesuak diseinatzeko. Hartara, LABetik Hezkuntza Sailari exijitzen diogu erantzukizunez jokatu eta neurriak har ditzan. Badakigu askoz merkeago zaiola ordezkapenak bete gabe uztea hezkuntza publikoan inbertitzea baino, horregatik, argi eta garbi diogu nahikoa dela.

Ez zaigu nahikoa iruditzen Bildarratz Sailburuak publikoki egindako barkamen eskaera. Ez da sinesgarria, urtez urte gabezi berdinen ondorioak jasaten ditugula ikusirik. Hezkuntza Ordezkaritzan langileak falta dira, kudeaketarako lan ratioak ez dira onargarriak, hutsen zuzenketarako zuzendaritzen eta delegaritzen arteko komunikazio bide eraginkorrak sortzea premiazkoa da eta milaka langileren arretarako tamainako egiturak sortzea lehentasun bihurtu behar da. Nahikoa da!



Ikasturte berria, borrokarako aukera berriak:

Hezkuntza Legea

Esteka honetan irakurgai dago legearen zirriborroaren inguruan LABetik egiten dugun lehen irakurketa: <https://labur.eus/wbUjG>

Legearen garapenean, LABek hezkuntzako langileon aldarrikapenak lortzeko eta egungo hezkuntza-sistema gainditzeko borrokan jarraituko du, sare publiko eta berri bakarreranzko trantsizio bidean jar dezagun. Izan ere, dituen hutsuneen aurrean eragiten jarraitu behar dugu.

Zentzu horretan, Eskola Publikoko langile eta ikasleonek beharrei erantzutea premiazkoa da. Horregatik, LABek hainbatetan eskatu du eskola publikoa ardatza izan dadin, urgentziazkoa dela Eskola Publikoaren Plan Estrategikoa. Kuantifikatu daitezkeen neurri eta inbertsio zehatzak dituen: azpiegiturei, lan-baldintzei, baliabide material eta pertsonalei dagokionez baita publikazio edota azpikontrataturiko zerbitzuen errebertsioari dagokionez ere.

Sare publiko bakar eta desentralizaturanzko trantsizioan urratsak emateaz batera, burujabetzan sakontzeko borroka izango da LABena: hezkuntza eskumenak osorik eskuratu behar ditugu, egiturazkoa izango den Euskal Curriculum sortu eta garatu behar da eta ikastetxeen autonomia garatzeko baliabideak behar ditu eskola publikoak. Hezkuntza-sistema propio, euskaldun, laiko, feminista, inklusibo eta ez-segregatzailea gaurdanik egikaritu dadin beharrezko ekarpen eta aldarrikapenak egingo ditugu.

LEP, Kontsolidazio prozesuak

22/23 ikasturteak izan behar du Sailaren utzikeriari amaiera emateko urtea. Urteetan hazten utzi den interinitate tasarekin amaitu beharra dago. Langileek, eskolek, hezkuntza proiektuek eta haur eta ikasleek beharrezkoa dute eta.

Udazkenerako iragarri du Sailak meritu-lehiaketa burutzeko asmoa. Aldiz, hurrengo urterako ohiko oposizioak eta frogak ez baztertzailak izango dituzten LEPak aurreikusten dira. Gauzak horrela, afiliatuen eskura behar beste hitzaldi, ikastaro eta material jarriko ditugu LABetik aurrean ere. Karrera funtzionario bihurtzeko gainditu behar den prozesu atzerakoi horretan langileak lagundu eta babesteko. Are gehiago, kontuan hartu beharra dago milaka langileren egunerokoa baldintzatuko duen prozesua izan daitekeela. Hartara, tribunaletan parte hartzeko

ZERBITZU PUBLIKOAK - Irakasleak EAE

2022ko iraila

eskola utzi beharko duten irakasleak bideratzea, gaitegi zaharkituak eta erderaz izateak dakarren lan zama denbora tarte txikian burutzen ibiltzea...

Bada garaia ebaluazio hezitzailearen bidetik hausnarketa egiten hasteko, nork eta nola nahi dugun etorkizuneko belaunaldiak heztea alegia. Gai honekin ere, urteak dira Hezkuntza Sailak etxerako lanak bete gabe dituela.

Lanbide Heziketako Legea

Lege berriak atea ireki du Lanbide Heziketako lehenengo mailan ikasleak enpresetara praktikak egitera joateko. Horrek kezka eragin du langileongan, izan ere, proposamenaren atzean zenbait galdera erantzun gabe daude oraindik: langileon ordu lektiboen murrizketa eragingo du? Egokia da enpresetan lanbideaz oraindik nahikoa ez dakiten ikasleak bertan izatea? Zein lan egiteko? LABetik azpimarra egingo dugu gai horiek argitu eta langileon baldintzetan murrizketarik eman ez dadin.

Hori gutxi ez eta aintzat hartzekoa izango da orain datozen kontsolidazio prozesuak izango direla irakasle gisa jarduten jarraitzeko azken aukera 16 espezialitate ez-singularretako irakasle teknikoentzat. Zein berme jarriko du Hezkuntza Sailak kontsolidazio prozesuetan lanposturik lortuko ez duten Lanbide Heziketako irakasle tekniko hauentzat? Gai hauek lantzeko, Lanbide Heziketako sailburu den Jorge Arévalo eta Hezkuntza Saileko pertsonal buru den Blanca Guerrerorekin batzar monografikoak eskatzen jarraituko dugu.

Lan Hitzarmen berria

Urte eta erdiko negoziazioaren ondoren, ikastetxeak hornitzeko akordioa erdietsi genuen maiatzean. Hala ere, negoziazioa ez da oraindik amaitu eta hobekuntza asko ditugu borrokatzeko Lan Hitzarmenari dagokionez.

Langileen gazte-berritze planak (interinoentzat adinagatiko murrizketak barne), klausula feministak, lanaldiaren antolaketa eta presentzialitatea, erosahalmena, ordezkoen araudia, euskara planak eta lan osasuna bezalako aferetan, aurrerapausuak emateko ezinbestekoa izango da langile guztion ekarpena eta bultzada.

Birbaremazioa

21/22 ikasturtean irekitako bidetik espero dira aurten ere birmarerazioak azaroan. Aurreko ikasturtean egindako lanaren ondorioz, langileen eskariak arrazoizkoak direla ikustaraziz lortu dugu zenbait zerrendetan izen emateko aukerak zabaltzea.

Hala ere, bide luzea dago aurretik, izan ere, Hezkuntza Sailak ezikusiarena egiten jarraitzen du atzerriko titulazioen ekiparazioak dituzten irakasleekin. Bestalde, azaroan aukeratzen dugu zein lurralde eta jardunetan egin nahi dugun lan irailetik aurrera. Tarte luzeegia da hori, epe laburragoan sartu beharko litzateke indarrean gure aukeraketa.

Lekualdatzeak

Ikasturte honetan ere eskainiko ditugu lekualdatzeen inguruko ikastaroak EAEko hiriburuetan. Gai honi lotuta dago ere destinorik gabeko karreradun funtzionarioentzako plazen aukeraketarako afera. LABek aurreko ikasturtean bultzatutako ekimenez lortu zen probintzien mugaldeen bizi diren langileek lurraldeaz gaindiko lanpostuak aukeratu ahal izatea.

Lehenetsi beharrekoa da kontsolidazio prozesuetarako eskainiko diren lanpostuetan oraindik destinorik gabe dauden funtzionarioek lanpostuak lehentasunez aukeratu ahal izatea.

Zurekin BAGARA eta Hauteskunde Sindikalak

4 urte pasa dira LABek hauteskunde sindikalak irabazi zituenetik hezkuntza publikoan. Orduetik hona, pandemia bat, Hezkuntza Sail berri bat eta 11 borrokaren lekuko izan gara.

Hala ere, badugu aurrera indar gehiagoz egiteko aukera. Badugu gure aldarrikapenak ahots ozenagoz entzunarazteko aukera eta badugu aukera Euskal Eskola Publiko Komunitarioa amestetik eraikitzen pasatzeko.

Eskola inklusiboa, euskalduna, parte hartzailea, laikoa, feminista eta askea lortzeko urratsak emateko abagunea ematen digute hauteskunde sindikalek. Eta LABekin kapitalak ezarri nahi dizkigun bizi-baldintzen okertzearen aurrean langileon arteko elkartasun olatua eraikitzeko aukera izango dugu. Tuteratik Turtziozera eta Hendaiatik Oionera, ZUREKIN BAGARA!

BAGARA

zurekin

Egiteko beste modu bat